

# Inpaktu sozialaren neurketa 2014-2020

## AukerAbility



EUROPAR BATASUNA  
UNION EUROPEA  
EUROPAKO GIZARTE FUNTSA  
FONDO SOCIAL EUROPEO



Europako Gizarte Funtsak  
zure etorkizunean inbertitzen du  
El Fondo Social Europeo  
invierte en tu futuro



**Memoria hau** Siniple Consultores etxearen gidaritzarekin eta laguntzarekin egin da, eta erreferentzia gisa hartu ditu parte hartu duten enprekin (Katea Legaia, Usoa, Lantegi Batuak eta Gureak) eta EHLABEko taldearekin egindako kontraste-saioretako datuak eta hausnarketak.


## AURKIBIDEA

# Inpaktua neurtzeko txostena

---

AUKERABILITY	03
GURE INPAKTUA MINUTU BATEAN	04
NOLA SORTZEN DU INPAKTUA AUKERABILITYK?	05
PERTSONA GEHIAGO ETA GAITUAGOAK	09
AUKERA GEHIAGO	14
GEHIAGO EGOKITUTA EGOERA GEHIAGOTARA	17
ETORKIZUNERAKO GOMENDIOAK	19

---



# AUKERABILITY

## «BERRIKUNTZA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO»

AukerAbility proiektu berritzailea da enplegu inklusiboaren alorrean, eta EAEko 2014-2020 aldirako Europako Gizarte Funtsaren Programa Operatiboaren barruan kokatua da. EHLABEK zuzentzen du, eta parte hartzen duten erakundeen artean daude Gureak, Lantegi Batuak, Katea Legaia eta Usoa. Proiektu honen helburua da, batetik, desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak garatzeko bideak hobetzea eta, bestetik, enplegua sortzeko edo mantentzeko aukera berriak bilatzea pertsona horiekin pentsaturik.

Orotara 8 milioi euroko aurrekontua izan du: Europako Gizarte Funtsak % 50ean kofinantzatu du, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien lankidetzara ere izan du.




Azterlan honen bidez, egiaztatu dugu AukerAbilityk inpaktu argia sortzen duela gure ingurunean, eta horixe kontatu nahi dizugu orri hauetan. Lan honetan, ikusiko duzu, alde batetik, desgaitasuna duten **625 pertsona** gaitu direla edo **414 enplegu berri** sortu direla. Eta, horretaz gainera, ulertuko duzu zer-nola gertatu den inpaktu hori eta zer erronka ditugun aurrez aurre.




*Egin klik irudi honen ganean, eta jakin gehiago AukerAbilityri buruz.*

# GURE INPAKTUA MINUTU BATEAN

## AukerAbility




...Halere, inpaktua harago doa, ez baita mugatzen desgaitasuna duten



# NOLA SORTZEN DU INPAKTUA?

AukerAbilityren helburu nagusia da desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna hobetzea, bai eta lan-aukerak eskaintzen dituzten jarduera berriak bilatzea ere. Horretarako, aldaketa horiek nola sortzen diren aztertu dugu inpaktu sozialaren ikuspegitik. Alde batera utzita enpresa ugariaren askotariko proiektuak biltzen dituela eta etengabe aldatzen diren inguruneetan gauzatzen direla, eredu komun bat identifikatu dugu inpaktua sortzeko moduan. Hori horrela, hiru dimentsiotan sortzen du AukerAbilityk inpaktu soziala. Pertsonen gaitasuna hobetzeak, lan-aukera gehiago lortzeak eta pertsonetara egokitzeak enplegarritasun-zirkulu bertutetsu bat sortzen du:



## GAITASUNA

- ▶ Desgaitasuna duten pertsonak prestatzeari eta trebatzeari esker, pertsona kualifikatuak eta prestatuak lortzen dira, inguruko enpresen beharretarako.

## LANPOSTUA

- ▶ Lanpostu berriak sortzeari esker, aukera gehiago eskaintzen zaizkie desgaitasuna duten pertsoneri.

## EGOKITZEA

- ▶ Lanpostuak ahalik eta gehien egokitzeari esker, pertsona gehiagok erabil ditzakete eta, gainera, modu asegarrian erantzun dakieke desgaitasunen bat duten pertsonen beren lanbide-karreraren unerik batean izan ditzaketen premiei. Bereziki hauskortasun handieneko momentuetan.

Jarraian, 3 dimentsioetako bakoitzaren **inpaktu-logika** erakutsiko dugu. Hau da, Aldaketaren Teoria oinarri hartuta eta Europako Batzordeak ezarritako estandarrei jarraituz, deskribatuko dugu zer emaitza gertatzen diren dimentsio bakoitzean, zer aldaketa izan diren epe laburrean eta zer inpaktu espero diren epe luzera begira.

## GAITASUNA

Bloke honetan, desgaitasunen bat duten langabeei zuzendutako programak biltzen dira, baina baita parte hartzen duten erakundeetan jada enplegatuta dauden desgaituei zuzendutakoak ere. Grafikoan ikus daitekeen bezala, guztiek dute inpaktu-logika bera. Haien eragin-eremua da, batetik, desgaitasunen bat duten pertsonen ahalik eta kopuru handiena erakartzea eta, bestetik, desgaitasunen bat duten pertsonak gaitasun handiagoa izatea (ezagutza, esperientzia eta/edo titulazio berria eskuratzea). Eta, horrekin, enplegu-aukerak zabaltzea lortzen dugu. Horrek guztiak, era berean, modu positiboan eragiten du haien garapen pertsonalean epe luzera.

	Pertsona gehiago	Gaituago			
		Jakintza	Titulua	Esperientzia	
<b>Prestakuntza duala</b>	Formula tradizionalekin trebatuko ez ziren pertsonak erakartzea	+++	+++	+++	+++
<b>Lan-aurreko prestakuntza</b>	Pertsona gehiago enplegagarritasunera gerturatzea lortzen du	+			+
<b>Prestakuntza + praktikak</b>	Aldi berean pertsona asko trebatzea lortzea	+++	+++	+	++
· Profesionaltasun ziurtagiria					
· Akademia lan-eskaintza publikorako	Enplegu publikoa nahi duten pertsonak	+			+++
<b>Lanekoak ez diren praktikak</b>	Ohiko ingurunerako pertsona gaituagoak			+++	++
· Bideratzen					
· Pauso Berriak	Ohiko ingurunerako gaitasun gutxiagoko pertsonak			+++	+
<b>Profesionaltasuna aintzatestea</b>	Prestakuntzaren alorrean lanean diharduten pertsonen sarrera erraztea		+++		<+
<b>Prestakuntza harrera</b>	Sartzen diren pertsona guztietara iristea	+			Produktibitatea areagotzea
<b>Polibalentzia planak</b>	Aldi berean pertsona asko trebatzea lortzea	++		+	Produktibitatea areagotzea


**Enplegu-aukerak**

**Adreilu bat beren eraikuntza pertsonalean**

- BIZITZA AUTONOMOIA
- AUTOESTIMUA
- MOTIBAZIOA
- AHALDUNTZEA
- BIZI-KALITATEA

## LANPOSTUA

Inpaktu nagusia desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-aukera berriak sortzea da. Hori lortzeko, merkatu berriak aztertzearen eta arakatzearen aldeko apustua egiten da. Hala ere, lan horrek badu arriskurik. Esate baterako, baliteke bideragarri egiteko adina merkatu ez izatea, enpresa lehiakideentzat proposamen bereizgarririk ez lortzea, edo gutxitxo izatea desgaitasuna duten pertsonentzat sor daitezkeen lanpostuak. Hori dela eta, bi inpaktu mota bereizten ditugu. Batetik, proiektu arrakastatsuetatik eratorritakoa (enpleguak, inbertsioa, ikusgarritasuna, eta abar). Eta, bestetik, proiektu guztietan ageri den inpaktua: alegia, ezagutza sortzea, lortzen diren kontaktuak eta, ezinezkotzat jotzen ziren sektoreetan enplegua sortzeko aukerari esker, aurreiritziak haustea.




## EGOKITZEA

Desgaitasun bat izanik, enplegatuta dauden eta zahartzen edo hondatzen ari diren pertsonen zuzenduak izan dira egokitzapen-jarduerak kasu honetan. Kontuan izanik narriadura-prozesu horrek arriskuan jartzen duela pertsona horien enplegarritasuna.


Garrantzitsua da ulertzea aldaketa detekziotik hasten dela; ez narriadura-prozesuari aurrea hartzeko bakarrik, baita zenbait kasutan pertsonak estigmatzat hartzen duelako ere.

Detektatu ondoren, hainbat jarduera egiten dira haiekin, hala nola mugikortasun-arazoak, suminkortasuna, nekea edo ahantzurak hobetzeko. Hori horrela, epe ertainerako helburua ahalik eta lan handiena egitea da, pertsona horrek enpleguari eutsi diezaion eta GAITASUN-BLOKEAN adierazitako onurak gal ez ditzan: bizitza autonomoa, autoestimua, motibazioa eta abar.





## ● PERTSONA GEHIAGO ETA GAITUAGOAK



**625 pertsonaren enplegarritasuna** hobetu da, haien gaitasunak lantzearen, gaitasunak hobetzearen eta prestakuntza jasotzearen poderioz, bai lan-munduan sartzeko, bai lanbide-jarduna hobetzeko – lehendik lanean ari diren pertsonen kasuan–.

### PRESTAKUNTZA DUALA –GUREAK–

*Prestakuntza jaso duten 48 pertsonetatik % 88k lortu dute enplegua.*



*Egin klik irudi honetan, prestakuntza dualeko proiektuari buruz gehiago jakiteko.*

Hain zuzen, desgaitasuna duten pertsonak lan-munduan sartu aurretik eta sartu bitartean prestatzea eta gaitzea da erronka EHLABEko erakundeentzat. Baina merezi du ahaleginak, desgaitasuna duten pertsona gehiago trebatzeak enplegarritasuna hobetzen baitu eta horrek modu positiboan laguntzen baitio pertsona horien garapen pertsonalari.

Horregatik, proiektua gauzatu bitartean, inpaktu bereziak dituzten bi ildotan jardun dute erakundeek, zeinak hurrengo lerroetan azalduko baititugu zehatz-mehatz:

- Lan-munduan sartzeko gaikuntza.
- Desgaitasuna duten pertsonak gaitzea, enplegarritasuna hobetu dezaten.

Ekintza hauek gauzatu dira:

## GAIKUNTZA lan-munduan sartzeko:

	Prestakuntza DUALA	Praktikak	Profesionaltasun-ziurtagiria	Akademia egokitua
<b>Zertan datza?</b>	Prestakuntza arautuko programa, ikastetxeko ikaskuntza eta enpresako esperientzia uztartzen dituen.	Desgaitasuna duten pertsonen prestakuntza jasotako ezagutzak aplikatzen dituzte enpresetan, eta, hartara, gaitasunak eskuratzen dituzte.	Gai espezifikoetako prestakuntza teknikoak. Oso orientatuta daude lan-merkatara, eta modu egokitan eta eskuragarrian egiten dira.	Oposizioak prestatzeko zentroa, desgaitasuna duten pertsonetara bideratua.
<b>Datuak</b>	<b>62 pertsona</b> <b>% 77k amaitzen du</b> <b>% 87ko enplegua</b>	<b>101 pertsona</b> <b>% 88k amaitzen du</b> <b>% 13ko enplegua*</b> <small>* Zerbakia txikia izanik ere, handia da inpaktua; izan ere, bistaratu egiten ditu desgaitasuna duten pertsonak eta aldarazi egiten ditu enpresak (enpresako zerbitzu okupazionala).</small>	<b>84 pertsona</b> <b>% 92k amaitzen du</b> <b>% 40ko enplegua</b>	<b>211 pertsona proiektua</b> <b>2021ean hasi zenetik.</b> <i>(Inpaktuaren emaitzak lortzeko zain).</i>
<b>Zergatik da garrantzitsua inpaktuari dagokionez?</b>	Bestela nekez lortuko luketen pertsonak trebatzen dira, eta, hala, ia kasu guztietan lortzen dute enplegua.	Desgaitasunen bat duten pertsona gehiago inguru arruntean (enplegua eta zerbitzu okupazionala)	Inbertsio txikiagoarekin, pertsonen enplegarritasun handiagoa izatea lortzen da.	Desgaitasunen bat duten pertsona gehiago ingurune publikoan

Oro har, desgaitasuna duten pertsonen % 87k amaitzen du prestakuntza-prozesua (% 55 gizonak eta % 45 emakumeak).

Horietatik:

- % 37k sei hilabetetik gorako enplegua lortzen dute.
  - % 34k enplegu bat lortzen dute.
  - % 3k enplegu arrunta.
- % 22k enplegu-modalitateko praktikak egin dituzten enpresan jarraitzen dute.
  - % 20k enplegu bat
  - % 3k enplegu arrunta

## LAN ESKOLA -LANTEGI BATUAK-

2021ean, Lantegi Batuek akademia egokitua sortu dute, desgaitasunen bat duten pertsonak oposizioetarako presta daitezzen.

211 pertsona



Egin klik irudi honetan, Lantegi Batuetako Lan Eskolaren proiektuari buruz gehiago jakiteko.



**GAIKUNTZA,** dagoeneko kontratatuta dauden pertsonen enplegarritasuna areagotzeko:

	Polibalentzia-planak	Profesionaltasuna aitortzea	Harrerako prestakuntza
<b>Zertan datza?</b>	Hainbat eginkizunetarako gaikuntza	Lan eginez eskuratu dituzten gaitasunak aitortzea.	Kontratatzen dituzten lanpostura hurbiltzeko prestakuntza.
<b>Datuak</b>	<b>131 pertsona</b> <b>% 100ek hobetzen du enplegarritasuna</b>	<b>264 pertsona</b> <b>% 99,6k amaitzen du</b>	<b>17 pertsona</b> <b>% 100k amaitzen du</b>
<b>Zergatik da garrantzitsua inpaktuari dagokionez?</b>	Pertsona gehiago prestaturik hainbat lanpostutarako.	Aintzatespenaz gainera, aukera gehiago ematen dizkiete kategoriaz igotzeko edo aukera berriak bilatzeko.	Produktibitatea hobetzea eta lanpostura gehiago hurbiltzea ahalbidetzen du.

## AZKEN INPAKTUARI EGINDAKO EKARPENA:

**Gaitasun-bloke** honen inpaktu-fokuaren muin gisa, nabarmentzekoa da enplegua lortzeko, mantentzeko edo enpleguan aurrera egiteko eskaintzen den aukera. Horretarako, erabakigarria programa horien eraginkortasuna. Nabarmena izaten da programa gehienetan, baina beti ez da agertzen argi eta garbi.

### POLIBALENTZIA- PLANAK -KATEA LEGAIA-

**81 PERTSONA**

**% 100eko  
enplegagarritasu  
na lortzen da**



*Egin klik irudi honetan, Katea Legaiaren polibalentzia-planari buruz gehiago jakiteko.*

- Alde batetik, prestakuntza dualeko programek enplegua eskuratzeko ratio oso altuak ageri dituzte. Datu horiek txikixeagoak dira profesionaltasun-ziurtagirietan, baina badute alderdi osagarri bat: oso profil desberdinak betetzeaz gainera, pertsona gehiagori arreta ematea lortzen dugu.
- Praktiketako programek ratio txikiagoak dituzte, baina garrantzitsua da testuinguruan kokatzea. Ingurune arruntera bideratzen dira batez ere, eta hori urrun samar geratzen den inguruabar konplexua izan ohi da desgaitasuna duten pertsonentzat. Enpresako zerbitzu okupazionalako formulen bidez (% 80 inguru), bide hori erraztea lortzen dugu, enpresak eta gizartea gero eta gaituago egon daitezen inklusioaren alde egiteko.
- Enplegatuentzako prestakuntza-programak oso eraginkorrak dira, eta nabarmentzekoa da polibalentzia-planen inpaktua.


## GENERO-BERDINTASUNA:

Hainbat ekintza identifikatu dira emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna hobetzeko. Hona hemen nagusiak:

- Emakumeen % 4ko kuota, prestakuntza-ikastaro batzuk abian jartzeko baldintza gisa, baita emakumeei berariaz zuzendutako prestakuntza-ekintzak ere (Gureak eta Lantegi Batuak).
- Berdintasunari buruzko modulu bat ematea prestakuntza batzuen barruan (Lantegi Batuak).
- Genero-berdintasunari buruzko zabalkunde-foeetan parte hartzea desgaitasuna duten pertsonen kolektiboetan (Lantegi Batuak).

Ekintza horiek hasiera polita dira. Arlo horretan hobetzeko, beharrezkoa izango da, alde batetik, proiektu guztietara zabaltzea ondoen funtzionatzen duten praktikak. Eta, bestetik, ildo horretan eragina duten ekintza berriak aztertzea.

Lortutako emaitzei dagokienez, positiboa da emakumeen guztizko ratioa % 50era hurbiltzea (% 45 amaitzen duten pertsonen artean). Eta, enplegua eskuratzen duten emakumeak gutxiago badira ere, prestakuntza amaitu eta lan-munduan sartzen diren emakumeen ehunekoa gizonena baino handixeagoa da.



## INGURUNEAN DUEN INPAKTUA:

Proiektua gauzatzeko, 20 erakunderekin lankidetzan aritu gara, eta horrek balio erantsia ekarri die proiektuari ez ezik parte-hartzaileei ere. Erakunde horiekin, etorkizuneko aukeren sarea sortzeaz gainera, ikaskuntzak partekatzen dira eta gizarte osoa eraldatzen da.

Inplikaturak o kanpo-erakundeak	Hezkuntzako erakundeak	Enpresak	Administrazi o publikoak	Beste batzuk	Guztira
	3	6	10	1	20

# AUKERA GEHIAGO

## Lanpostua



**AZTERKETA**



**ARAKATZEA**



**PILOTUA**



**EZARPENA**



Egungo merkatua oso aldakorra eta lehiakorra da, eta, hori dela medio, enpresek eta erakundeek inguruko errealitatera egokitu behar dute.

Ildo horretan, EHLABEko enpresak etengabe ari dira berritzen eta merkatu berriak aztertzen, desgaitasuna duten pertsonak lan-munduan sar daitezten eta eskaintza zabalagoa izan dezaten. Horretarako, funtsezkoa da gaitasun-blokearekin loturik jardutea. Prestatutako pertsonen lan-aukerak behar dituzte, eta lan-aukera berriek, ostera, pertsona prestatuak behar dituzte horiek aurrera eramateko.

**Supermerkatuak  
eta frankiziak**


**–GUREAK–**

**Arloa:** Elikadura

**Inbertsioa:** 1.200.000 €

**Sortutako lanpostuak:** 44

**2026rako aurreikuspena:** 74



**Bi proiektutik  
bat  
ezartzen da**

AukerAbility proiektua gauzatzean, erakunde bakoitzak hainbat ekintza gauzatu ditu merkatu berriak sortzeko.

Negoio berri guztiak bezala, handiak dira porrot egiteko aukerak. Hala ere, egindako prospekzio-ekintzen arabera, % 48 ezartzera iritsi dira, % 33 azterketa- edo esplorazio-fasean daude oraindik, eta gainerako % 19tik ikaskuntza baliotsua lortu da, zabaldu egin baita kontaktu-sarea.

## Zabala da lan-aukeren sorta:

**414 lan-aukera** sortu dira desgaitasuna duten pertsonentzat. Aurreikuspenen arabera, **bost urtean % 80ra igoko da**, 732 lanpostu berrirekin. Horretaz gainera, aukera horietatik 117 gizartearen gainerakoentzat bereziki ikusgarriak diren lanpostuetan gertatu dira. Horrek, laneratzea hobetzeaz gainera, ikusgarritasun gehigarria lortzen du gizartearen, desgaitasuna duten pertsonen buruzko aurreiritziak hausteko.



## INGURUNEAN DUEN INPAKTUA:

Lortutako emaitzez gainera, proiektu horien balio erantsi gisa nabarmenduko genuke, batetik, EHLABEko erakundeek ezagutza sortu dutela eta, bestetik, zabaldu egin dutela kanpoko erakundeekiko harreman-sarea. Horri esker, aliantzak egin ahal izan dira **66 enpresarekin** eta **9 administrazio publikorekin**, eta horrek aukera berriak garatzea ekarriko du etorkizunean.

Gainera, proiektu horiek ezartzeak zuzenean eragiten dio gizarteari. Izan ere:

- Areagotu egiten du desgaitasuna duten pertsonen ikusgarritasuna.
- Kontzientzia eta prestakuntza bultzatzen ditu pertsonen artean, aurreiritziak murrizteko.
- Gizarte- eta ingurumen-inpaktua sortzen du negoziotan.
- Inpaktu ekonomikoa sortzen du.
- Lagungarria da desgaitasuna duten pertsonen presentzia areagotzeko, gizartearentzat ikusgarrienak diren lanpostuetan.

Azkenik, proiektu arrakastatsuek inbertsio gehiago mugiarazten dituzte, eta, horrekin, onura ekartzen diote Euskadiko ekonomiari. Hori horrela, ezarpen-fasera iritsi diren proiektuen artean, **2,7 milioi euro inbertitu dira** makinerian, zerbitzuetan eta abarretan.

Badira onurak EHLABEko erakundeentzat, proiektuak arrakasta izan ala ez



**2,7 M€**  
inbertsio  
gehigarritan  
erakundeen aldetik

## GENERO-BERDINTASUNA:

Lan-aukerak sortzean genero-berdintasuna sustatzeko jardunbide egokiak aurkitu dira:

- Erakunde eta teknikari guztientzako prestakuntza proiektuaren hasieran, ekintzen eta proiektuen diseinuan berdintasuna kontuan har zezaten. EHLABEk koordinatu zuen, eta Gureak-en exekutatu zen.
- Gureak-ek genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza eman zuen (2019an) proiektuen diseinuan, eta AukerAbilityko prospektoreek, Egokituz-eko teknikariek eta prestakuntzako langileek parte hartu zuten.
- Prospektoreak genero-berdintasunean prestatzea, emakumeentzako aukera gehiago lortzeko.
- Prospekziarako postu gehiago eta emakumeek betetako lanpostuen egokitzea. Kasu honetan, % 100era iritsi zen Gureak-en.

Funtsezkoa da horiek estrapolatzea eta neurri berriak topatzea, arlo horretan aurrera egiten jarraitzeko.



# GEHIAGO EGOKITUTA EGOERA GEHIAGOTARA

## Zahartze aktiboko programa.

### -Lantegi Batuak-

Mindfulness, yoga eta halako beste hainbat jarduera egin dira.




Egin klik irudi honetan, zahartze aktiboko planei buruz gehiago jakiteko.

Pertsona bakoitzaren gaitasun indibidualetatik abiatuta, AukerAbilityk egokitu egin nahi du desgaitasuna duen pertsona bakoitzak bere lanbizitzako fase desberdinetan eskatzen dituen beharretara.

Lanaren ardatza izan da zahartze aktiboko eta bizi-kalitatea hobetzeko metodologiak ezartzea, desgaitasuna duten pertsona kalteberenek enplegarritasuna hobetzeko edo mantentzeko.

Ildo horretan, guztira 973 pertsonari eman zaie arreta, eta urtean 167 lanpostu aztertu dira, batez beste. Pertsonen % 98k lanpostuan jarrai dezake, eta gainerako % 2k ezin du enplegatuta jarraitu, egoeraren narriadura dela eta.

## Egokitzapenak



## GENERO-BERDINTASUNA:

Egin beharreko egokitzapenak egiteko orduan, jardunbide egokiak aurkitu dira genero-berdintasuna sustatzeko. Zehazki, honako hauek:

- Generoaren arabera itemak desberdin aztertzea, balorazioak hobeto ulertzeko eta haztatzeko. Adibidez, Lantegi Batuetan genero-desberdintasunak hauteman zituzten gizonen eta emakumeen arteko nekea ebaluatzeko moduan.
- Detekzioa egiterakoan, kontuan hartu ziren genero-desberdintasunak eta parte hartu zuten emakumeen beharrak. Adibidez, Katea Legaiak detektatu zuen interakzio-maiztasun handiagoa behar zela emakumeen kasuan.

## AZKEN INPAKTUARI EGINDAKO EKARPENA:

Interesgarria da jakitea horrek zer inpaktu eragiten duen egiaz eguneroko martxan, baina oraingo honetan ezin izan da neurtu. Horregatik, etorkizunean honako hauek erregistratzea gomendatzen da:

- Pertsonak hautemandako onurak (inkestean bidez jasoak...).
- Produktibitatean duen eragina (pertsonaren produktibitateak lanpostuan duen absentismoaren bidez).

# ETORKIZUNERAKO GOMENDIOAK

## AukerAbility

Dokumentu hau amaitzeko, etorkizunerako ditugun gomendioak jaso ditugu. Inpaktua neurtzea etengabe hobetzeko prozesua da, eta ideia horiek gida gisa erabili beharko lirateke emaitzen bilketa eta ustiapena hobetzeko eta aberasteko.



# Txostena: Inpaktuaren neurketa

## AUKERABILITY PROIEKTUA

### EHLABE

Oto hiribidea 50  
01010 Vitoria-Gasteiz, Araba  
94346224

[WWW.EHLABE.ORG](http://WWW.EHLABE.ORG)

EUROPAR BATASUNA  
UNION EUROPEA

EUROPAKO GIZARTE FUNTSA  
FONDO SOCIAL EUROPEO



Europako Gizarte Funtsak  
zure etorkizunean inbertitzen du

El Fondo Social Europeo  
invierte en tu futuro

### PARTE-HARTZAILEAK:

